



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA-EUSKAL HERRIA

EXP: 2020WDI10007

IBARRAKO UDALAREN ETA HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Ibarrako udaletxean, 2020ko abenduaren 10ean

ELKARTURIK

Alde batetik, IGOR ZAPIRAIN LIZARRIBAR, Ibarrako Udaleko Alkatea, Ibarrako Udaleko Idazkari Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echavek lagunduta.

Eta bestetik, EUSEBIO UBERETAGOENA ARRATIBEL jauna, HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEAren lehendakaria. Elkartearen egoitza soziala: Euskal Herria kalea, 44; 20400 IBARRAn duena, IFK: **G20808341**

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ibarrako Udalaren izenean eta ordezkartzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEAren izenean eta ordezkartzan, 2003ko maiatzaren 21eko ebazpenaren ondorioz AS/G/10493/2003 erregistro zenbakiarekin Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Nagusian inskribatuta dagoen elkartearen 22 eta 23. artikuluetan zehazten denaren baitan, eta 2020ko irailaren 29an inskribatutako Zuzendaritza Batzordeko LEHENDAKARI gisa.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALDU DUTE

I.- HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEAK, Udal honetan 2020ko uztailaren 27an aurkeztutako idatziaren bidez –sarrera erregistroko zenbakia 1558- eta 2020ko azaroaren 2an aurkeztutako idatziaren bidez –sarrera erregistroko zenbakia 2370- **Hauspibarra Kultur Elkarteak 2020. urtean zehar gauzatuko duen programaziorako** dirulaguntza eskaera aurkeztu zuela, Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrek xedatutakoarekin bat etorritik. Memoria honek **3.734,81** euroko aurrekontua du, dirulaguntza eskaeraren helburu diren ondorengo jarduerak gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da. Jarduerak:

1. Santa Ageda bezpera antolatu eta ospatzea otsailaren 4an.

2. Iñauteriak iragartzeko kaldereroen konpartsa antolatzea, otsailaren 14an.
3. Urtean zehar herriko elkarte eta eragile ezberdinekin elkarlanean aritzea.

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, Dirulaguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluko 2. eta 3. zatietan diru-laguntzak jasotzeko adierazitako debeku-kausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritz, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helbururekin.

V.- Ibarra Udalaren 2020ko udal aurrekontuan, **1.09.334.20.481.01 (261) "Transferentzia Hauspibarra" partida agertzen dela, 8.000,00** euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen dirulaguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen duela: **KULTURA sustapena-herritartasun aktiboa**. Eskumen hau Udalaren berezko eskumenen artean dago eta **HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEAK Ibarra herrian euskal kultura zaintzea eta zabaltzea helburu nagusia duen kultur elkarte bakarra da.**

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak aitortzen duenez, Udalerrien eskumena da udal ondare historikoa babestea, kudeatzea eta kontserbatzea. Aipatu eskumenaren harira, maiatzaren 9ko Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 legeak zehazten duenaren baitan, dantza euskal kultura-ondare immateriala da, eta ondorioz, babestu beharra dago. 6/2019 legearen 56.1. artikuluan ezartzen denaren baitan, babesaren helburua izango da etorkizunean hura zainduta eta bideragarri egongo dela bermatzea, ondare hori identifikatzeko, zenbait euskarritan hari buruzko dokumentazioa ezartzeko, ikertzeko, begiratzeko, berpizteko, sustatzeko eta erakusteko beharrezkoak diren neurriak eta baliabideak ezarriz.

VII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.



VIII.- Dirulaguntza izendun hau, Ibarra Udalak 2020ko otsailaren 18an onartutako Ibarra Udaleko Dirulaguntza Plan Estrategikoan (2020-2023) jasota dago (GAO, 38 zk), dirulaguntza izendun moduan, eta beraz, ez da norgehiagoka prozedurarik egingo dirulaguntza emateko.

IX.- 314/2019 Alkate Dekretuari jarraiki, dirulaguntza hau kudeatzeko organo eskuduna Kultura eta Gazteria zinegotzi delegatua izango da.

X.- Hori dela eta, 2020ko azaroaren 18an data duen 554/2020 Alkate Dekretu bidez Ibarra Hauspibarra Kultur Elkarteari 3.734,81 euroko dirulaguntza emateko hitzarmena sinatzea erabaki zen.

XI.- Aipatu dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitara emango da.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Ibarra Udalaren eta HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEAREN arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Ibarra udalerrian honako arrazoiengatik:

1. Herrian dagoen euskal kultura zaintzea eta zabaltzea helburu duen elkarte bakarra da.
2. Euskal kultura-ondare immateriala diren ohitura ezberdinak bultzatzen dituelako, herritarren artean zabaltzen dituelako eta haien transmisio eta babeserako lan egiten duelako.
3. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko parekidetasuna bultzatzen duelako.
4. Ibarri izen ona eta ospea ematen dielako.
5. Herriko eragile aktiboa delako, euskal kultura herritarren artean zabalduz eta bertan parte hartzeraz gona bidatuz.
6. Ibarra herritarrei oro har, herrian bertan euskal kulturaren murgiltzeko eta jarduteko aukera ematen dielako.

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduerak hauek sartzen dira:

1. Santa Ageda bezpera antolatzea otsailaren 4an.
2. Iñauteriak iragartzen duen kaldereroen konpartsa antolatzea otsailaren 14an.

3. Urtean zehar herriko elkarte eta eragile ezberdinekin elkarlanean aritzea.

Hirugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Ibarrako Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan dirulaguntza baten bidez. 2020ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek **3.734,81 eurokoak** izango dira, **1.09.334.20.481.01 Transferentzia Hauspibarra Kultur Elkarte**a Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje bat bezala kalkulatu da eta inoiz ezingo du emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Ibarrako udalak egindako balizko finantzazioaren soberakina kalkulatu da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentajea erreferentzia gisa harturik.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeena.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Ibarrako udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek **2020ko abenduaren 31a** arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Kultura eta Gazteria departamentuari, Ibarra Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoaren arabera III: kapitulua

Bosgarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Ibarra Udalaren Ordenantza Orokorraren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitatek ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Seigarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Ibarra Udalaren III kapituluan dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatuko da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:



a) Jarduera-memoria bat, diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko 1. Eranskina behar den bezala bete.

Zazpigarrena.- Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta. Kitapena 2021eko otsailaren 1a baino lehen aurkeztu beharko da.

Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, oro har, dirulaguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehena hitzarmenaren sinadura burutu ondorengo 30 eguneko epean beti ere Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan, honen zenbatekoa **dirulaguntzaren % 85a (3.174,59 €)** izango da, eta gainontzeko **% 15a (560,22 €)**, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan.

Betebeharreko baldintza izango da Ibarra Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

COVID-19a pandemia dela eta, Osasun Egoerak aurreikusitako jarduerak baldintzatu ditzakeenez, behin kitapena egiten denean jasotako aurrekontutik zein gastu egin diren eta zein ez zehaztuko du interesatuak dagokion doikuntza egin ahal izateko.

Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka orogarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan Ibarra udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo



IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA-EUSKAL HERRIA

hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Ibarra Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena.- COVID-19a dela eta, diruz laguntzen den jardueraren egokitzapena.

COVID-19 pandemia dela eta, sortu den osasun krisialdiari aurre egiteko 2020ko urriaren 26ko Lehendakariaren 36/2020 Dekretuak jasotzen dituen prebentzio neurriak ikusirik, Hauspibarra Kultur Elkarteak erabiltzen dituen Txontxo udal lokaletan indarrean dauden arauak bete beharko dira.

Herri mailan aurreikusten dituzten hainbat jarduera publiko momentuko osasun egoeraren baitan baldintzatuta egongo dira. Horiek antolatzerik balego, indarrean dauden osasun neurriak zehatz-mehatz jarraiki gauzatuko dira (aforoak, pertsonen arteko distantzia soziala, maskara,...).

Hamaikagarrena.- Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharra...) euskaraz edo elebitan egingo dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Ibarra Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamabigarrena.- Genero berdintasuna.

Dirulaguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- Sexuaren ziozko zigorrak administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.





- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.

- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamahirugarrena.- Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalagarrena.- Kontrol eta jarraipena.

Hitzarmen honen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Finantza kontrola Ibarra Udaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Hitzarmen honen onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan hitzarmen honetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

Hamabosgarrena.- Lan eta zerga legeria.

Dinuz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dauden legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamaseigarrena.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzeko den legediak arautzen dute.

Hamazazpigarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Ibarra Udaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 6 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.



hauspoo
Ibarra

Hemezortzigarrena.- Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ibarako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Hemeretzigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitekeen guztian, beteko dutela.

Hogeigarrena.- Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Ibarako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hogeita batgarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean eta goiburuan aipatutako toki eta egunean; Idazkaria naizen honek fede ematen dut



Igor Zapirain Lizarribar

HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEA



Eusebio Uberetagoena Arratibel

JUSTIFIKAZIOA
ZUZENKO DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA
JUSTIFICACIÓN SUBVENCIÓN NOMINATIVA

INTERESATUA: / PERSONA INTERESADA:

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	NAN-AIZ-IFK / DNI-NIE-CIF
------------------------------------	---------------------------

ORDEZKARIA: / REPRESENTANTE:

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	NAN-AIZ / DNI-NIE
------------------------------------	-------------------

JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO DATUAK: / DATOS PARA ENVIO DE NOTIFICACIONES:

Izen-abizenak edo sozietatearen izena / Nombre y apellidos o razón social				NAN-AIZ-Pasaportea / DNI-NIE-Pasaporte	
Helbidea / Domicilio	Zk / Nº	Pisua / Piso	Atea / Puerta	Udalerría / Municipio	PK / CP
Probintzia / Provincia	Telefona / Teléfono			E-mail	
Elektronikoki jakinaraztea nahi dut / Quiero recibir notificaciones electrónicas				Hizkuntza / Idioma	
<input type="checkbox"/> Bai / Si <input type="checkbox"/> Ez / No				<input type="checkbox"/> Euskara / Euskera <input type="checkbox"/> Elebitan / Bilingüe	

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, honako hau	Siendo el representante legal de la asociación especificada
Adierazten dut:	Declaro que:
Eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla, deialdi honetako 13. artikulua ezarritako betebeharrak betetzen ditudala eta, nolahi ere, prest nagoela Ibarra Udalaren esku jartzeko jasotako dirulaguntza behar bezala erabili dela konprobatzeko beharrezkoak direnak.	Los datos recopilados en este anexo son verdaderos y que cumplo con las obligaciones recogidas en el artículo 13 de esta convocatoria, y que en cualquier caso estoy dispuesto a poner a disposición del Ayuntamiento de Ibarra para que se compruebe que la subvención recibida se ha utilizado como se debía.
Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua	Firma del representante y sello de la entidad
Lekua eta data:	Lugar y fecha:





PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK / CARACTERÍSTICAS DEL PROYECTO

Izena / Nombre:																		
Azalpen laburra / Breve descripción:																		
Mota / Tipo:	<input type="checkbox"/> Urtekoa / Anual	<input type="checkbox"/> Puntuala / Puntual																
Iraupena / Duración:	Hasiera / Comienzo:	Bukaera / Fin:																
Gai nagusiak / Temas principales: <table border="0" style="width: 100%;"> <tr> <td><input type="checkbox"/> Herri nortasuna / Identidad del pueblo</td> <td><input type="checkbox"/> Kulturartekotasuna / Interculturalidad</td> </tr> <tr> <td><input type="checkbox"/> Ohiturak / Tradiciones</td> <td><input type="checkbox"/> Turismo kulturala / Turismo cultural</td> </tr> <tr> <td><input type="checkbox"/> Ondarea / Patrimonio</td> <td><input type="checkbox"/> Gastronomia / Gastronomía</td> </tr> <tr> <td><input type="checkbox"/> Artea eta kultura / Arte y cultura</td> <td><input type="checkbox"/> Musika / Música</td> </tr> <tr> <td><input type="checkbox"/> Historia</td> <td><input type="checkbox"/> Dantza / Danza</td> </tr> <tr> <td><input type="checkbox"/> Animazio soziokulturala / Animación sociocultural</td> <td><input type="checkbox"/> Arte eszenikoak / Artes escénicas</td> </tr> <tr> <td><input type="checkbox"/> Aisialdi hezitzailea / Ocio educativo</td> <td><input type="checkbox"/> Zinema / Cine</td> </tr> <tr> <td colspan="2"><input type="checkbox"/> Besterik / Otro:</td> </tr> </table>			<input type="checkbox"/> Herri nortasuna / Identidad del pueblo	<input type="checkbox"/> Kulturartekotasuna / Interculturalidad	<input type="checkbox"/> Ohiturak / Tradiciones	<input type="checkbox"/> Turismo kulturala / Turismo cultural	<input type="checkbox"/> Ondarea / Patrimonio	<input type="checkbox"/> Gastronomia / Gastronomía	<input type="checkbox"/> Artea eta kultura / Arte y cultura	<input type="checkbox"/> Musika / Música	<input type="checkbox"/> Historia	<input type="checkbox"/> Dantza / Danza	<input type="checkbox"/> Animazio soziokulturala / Animación sociocultural	<input type="checkbox"/> Arte eszenikoak / Artes escénicas	<input type="checkbox"/> Aisialdi hezitzailea / Ocio educativo	<input type="checkbox"/> Zinema / Cine	<input type="checkbox"/> Besterik / Otro:	
<input type="checkbox"/> Herri nortasuna / Identidad del pueblo	<input type="checkbox"/> Kulturartekotasuna / Interculturalidad																	
<input type="checkbox"/> Ohiturak / Tradiciones	<input type="checkbox"/> Turismo kulturala / Turismo cultural																	
<input type="checkbox"/> Ondarea / Patrimonio	<input type="checkbox"/> Gastronomia / Gastronomía																	
<input type="checkbox"/> Artea eta kultura / Arte y cultura	<input type="checkbox"/> Musika / Música																	
<input type="checkbox"/> Historia	<input type="checkbox"/> Dantza / Danza																	
<input type="checkbox"/> Animazio soziokulturala / Animación sociocultural	<input type="checkbox"/> Arte eszenikoak / Artes escénicas																	
<input type="checkbox"/> Aisialdi hezitzailea / Ocio educativo	<input type="checkbox"/> Zinema / Cine																	
<input type="checkbox"/> Besterik / Otro:																		
Helburu nagusia / Objetivo principal:																		
Jarduera nagusiak / Actividades principales																		
Jardueren hartzaileak (Zehaztu zeintzuk izan diren (sexua, adin tartea, etab.) Personas beneficiadas (sexo, edad, etc.)																		



<p>Euskararen erabilera (jardueretan erabili diren dokumentuetan, ahozko erabilera jardueretan) Uso del euskera (en la documentación utilizada en las actividades, uso verbal)</p>	
<p>Genero ikuspegia. Ezberdintasuna ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduera zehatzak Perspectiva de género. Objetivos y actividades concretas para suprimir diferencias y promover la igualdad.</p>	

AURREKONTUAREN JUSTIFIKAZIOA
JUSTIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO

JUSTIFIKAZIOA

Justifikazioaren alderdi ekonomikoa burutzeko garaian, Udalak honako mugak jarriko ditu:

SARRERAK:

Zehaztu beharko da zein izan diren jasotako sarrerak taulan jasotako mota bakoitzaren arabera. Fase honetan aipatu beharko da baldin bada baten bat nahiz eta oraindik ez jaso jasotzeko ziurtasuna dagoen.

GASTUAK:

1.- ERANSKINA: Udalak idatzi honi atxikita doan dokumentuan jasotzen den taula betetzea eskatuko du bai sarrera nola gastuei dagokionean. Orokorrean ez du eskatuko inongo dokumentu ez fotokopia ez original atxikitzea. Beraz elkarteek aipatu taula zuzen betetzea eta sinatzea da lan bakarra. Era honetan aitortzaileak bere gain hartzen du erantzukizuna dokumentu horretan jasotzen dena egia denarena.

2.- DOKUMENTU MOTAK: Udalak honako 4 dokumentu mota onartuko ditu:

- Fakturak
- Erosketa tiketa
- Elkarreentako gastu tiketa
- Ordainagiriak
- Nominak
- Erreziboak administrazioenak

JUSTIFICACIÓN

El Ayuntamiento establecerá los siguientes límites en la justificación económica:

INGRESOS:


Se deberán detallar los ingresos en base a cada tipo del cuadro. En esta fase, se deberá mencionar si existe algún otro tipo de subvención, a pesar de no haber recibido y exista la seguridad de que se va a recibir.

GASTOS:

1.- ANEXO: El Ayuntamiento exigirá rellenar el cuadro anexo a este documento, tanto de los ingresos como de los gastos. No pedirá ningún documento, fotocopia u original. Por lo tanto, las asociaciones deben cumplimentar debidamente el cuadro. De este modo, el interesado asume la responsabilidad de la veracidad de la documentación.

2.- TIPOS DE DOCUMENTOS: El Ayuntamiento aceptará los siguientes documentos:

- Facturas
- Ticket de compra
- Ticket de gasto de la asociación
- Recibos
- Nóminas
- Recibos de las administraciones





- a) **Tiketak erosketenak:** 20 eurotik gorakoak ez dira onartuko. Hala ere CIF a eta BEZa jarrita izan beharko dute. Kopuru honetatik aurrera Udalak gutxienik faktura sinplifikatua eskatuko du. Honek esan nahi du, CIF a eta BEZaren detailea behintzat izan beharko duela.
- b) **Tiketak elkarteko gastuak:** Onartuko dira bertan kontsumitutakoaren gastuak, baina ez lokalaren erabilera, elkartea bera denean ekintzaren antolatzailea.
- c) **Ordainagiri**en kasuan, % 15eko erretentzioak burututa egon beharko dute. Horrek esan nahi du ordainagiriaren % 85a zuzenean pertsonari emango zaiola eta % 15 a Ogasunean egin beharko dela sarrera. Kasu hauetan naiz eta udalean ez entregatu dokumentuak, % 85a jasotzen duenak sinatu egin beharko du ordainagiria jarriaz jaso duela dirua.
- d) **Fakturen** kasuan, BEZa desglosatua etorri beharko du bai portzentaje eta kopurua jasoaz.
- e) **Erreziboak administrazioarenak.** Administrazioaren batek erreziboren bat kobratu badiote (kantxa erabilera.....).
- f) **Nominak:** Kostu osoa jaso beharko da, bai langileari dagokion brutoa zein eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoa ere.

3.- PFEZa: Autonomoen fakturek PFEZa izango dute, eta ordainagirik ere bai. Ordainagiriaren kasuan % 15a da aplikagarria kasu guztietarako. Dirulaguntza eskatzaileak Ogasunean egin beharko du sarrera erretentzio horrena.

a) **Ticket de compra:** No se admitirán los superiores a 20 €. Deberán ir acompañados de CIF e IVA. En casos de importe superior el Ayuntamiento solicitará factura simplificada, es decir, deberá señalar el detalle de CIF e IVA.

b) **Ticket del gasto de asociación:** Se admitirán los gastos de lo consumido, pero no el uso del local cuando sea la asociación el organizador del evento.

c) **En caso de los recibos,** se deberá haber aplicado la retención del 15 %. Es decir, el 85 % del recibo se le entregará directamente al interesado y el 15 % se deberá ingresar en Hacienda. En estos casos, a pesar de no entregar los documentos en el ayuntamiento, el interesado que perciba el 85 % debe firmar aceptando que ha recibido el importe.

d) **En caso de facturas:** Se deberá presentar el IVA desglosado señalando el porcentaje y el importe.

e) **Recibos de administración.** Recibos en caso de que alguna administración haya cobrado (uso de cancha....).

f) **Nóminas:** Se deberá detallar todo el coste, tanto el bruto correspondiente al trabajador como el que se debe abonar a la Seguridad Social.

3.- IRPF: Las facturas de los autónomos así como los recibos deberán ir acompañados de IRPF. En caso de los recibos, se aplicará el 15 % en todos los casos. El solicitante de subvención deberá realizar el ingreso de la retención en Hacienda.





IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA-EUSKAL HERRIA

4.- BEZ-a: Irabazi asmorik gabeko erakundeak orokorrean ez dute BEZ-a jaso behar egiten dituzten fakturetan. Era berean fakturak badira formakuntza alorrekoak, kasu horretan ere normalean BEZik ez dute izaten. Faktura horiek idatzita izan behar dute zein artikuluren arabera salbuetsiak egon behar duten.

5.- EREDU BETEBEHARRA: Eredu honetan jasotako datuak betetzea ezinbestekoa izango da, hala ez den kasuan atzera botako delarik justifikazioa, eta 10 eguneko epea emango da osatzeko.

6.- ONDOREN BURUTUTAKO IKUSKAPENA
Udalak urtean zehar emandako dirulaguntza guztien artean, pare bat erakunderi eskatu ahal izango dio osatu dezan dokumentazioa, fiskalizatuaz aurreko urtean emandako dirulaguntzaren eduki materiala zuzena den edo ez.

4.- IVA: las asociaciones sin ánimo de lucro, no deben en general señalar el IVA en sus facturas. En caso de que las facturas sean del área de formación tampoco suelen ir acompañadas de IVA.

5.- OBLIGACIÓN DE CUMPLIMENTAR EL MODELO: Es indispensable cumplimentar los datos del modelo; en caso contrario no se admitirá la justificación y se concederá un plazo de 10 días para cumplimentar el mismo.

6.- INSPECCIÓN POSTERIOR: el Ayuntamiento tiene la facultad de solicitar la documentación complementaria a un par de asociaciones a las que se haya concedido la subvención, fiscalizando si es correcto el contenido material de la subvención concedida el año anterior.

A) SARREREN JUSTIFIKAZIOA /
JUSTIFICACIÓN DE INGRESOS

Azalpena / Concepto	Zenbatekoa Monto
SARRERAK / INGRESOS:	
Proiektuaren berezko diru-sarrerak: _____ Ingresos del proyecto	€
Erakunde pribatuen dirulaguntzak: _____ Ingresos de entidades privadas	€
Ibarrako Udala dirulaguntzak: Subvenciones del Ayuntamiento de Ibarra	€
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza Ayuda de la Diputación Foral de Guipúzcoa	€
Eusko Jaurlaritzaren laguntza Ayuda de Gobierno Vasco	€
Beste erakunde publiko baten laguntza: _____ Ayuda de otra entidad pública	€
Beste batzuk: _____ Otros	€
GUZTIRA SARRERAK / TOTAL INGRESOS	€
SARRERA AURREIKUSPEN HONETATIK ZER KOPURU DAGOEN ORAINDIK JASOTZEKO DE LA PREVISIÓN ACTUAL DE INGRESOS, CANTIDAD PENDIENTE A PERCIBIR	€



TAULAREN ARGIBIDEAK

Jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatua betetzerakoan honako datu hauek zehaztu beharko dira:

1. **Mota:** Agiri mota: Nomina, Ordainagiria (hartze-agiria), Administrazioeko erreziboak, faktura, gastu tiketa (20 euro bitarte) edo elkarteko tiketa.
2. **Zenbakia:** Faktura edo tiketa bada.
3. **Data:** kasu guztietan.
4. **Igorlea jarri behar da:** Faktura, errezibo eta tiketetan, hauek burutzen dituen, eta hartzailea jarri behar da nomina eta ordainagiritan, lana edo prestazioa burutu duen pertsona.
5. **IFK edo NANA**
6. **Kontzeptua:** gastuaren objektua.
7. **BEZ-a:** Faktura eta tiketen kasuan.
8. **PFEZa:** Nomina, ordainagiri kasuan eta autonomoen fakturretan.
9. **€:** Dirulaguntza eskatzaileak ordaindu behar izan duena.
10. **Guztira:** Kontzeptu guztien batuketara

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, honako hau
Adierazten dut:
Eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla, bertan jasotako ordainketak burutuak daudela, deialdi honetako 13. Artikuluak ezarritako betebeharrak betetzen ditudala eta, nolahi ere, prest nagoela Ibarra Udalaren esku jartzeko jasotako dirulaguntza behar bezala erabili dela konprobatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.
Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua :

Izena eta Abizenak.....

Lekua eta data:
2020korenan

INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR EL CUADRO:

Al cumplimentar la relación de gastos de actividad se deberán detallar los siguientes datos:

1. **Tipo:** Tipo de documento: Nómina recibo (acuse de recibo), recibos de administración, factura, ticket de gasto (hasta 20 €) o ticket de asociación.
2. **Número:** En caso de factura o ticket.
3. **Fecha:** En todos los casos.
4. **Emisor:** Se debe señalar en facturas, recibos y tickets la persona que los realiza y el destinatario en las nóminas y recibos, la persona que ha realizado el trabajo o la prestación.
5. **CIF o DNI**
6. **Concepto:** Objeto del gasto.
7. **IVA:** En caso de facturas o tickets.
8. **IPRF:** Nómina, recibo y facturas de autónomos.
9. **€:** Importe que ha abonado el solicitante de la subvención.
10. **Guztira:** Suma de todos los conceptos

Como representante legal de la mencionada asociación
Manifiesto:
La veracidad de todos los datos recogidos en este anexo, así como los siguientes extremos: que los pagos se han realizado; que cumplo con las obligaciones señaladas en el art 13. Manifiesto, asimismo mi entera disposición a facilitar al ayuntamiento de Ibarra cuantos documentos precise para la comprobación de la finalidad de la subvención recibida.
Firma del responsable y sello de la entidad:

Nombre y apellidos.....

Fecha y lugar: En, a..... de
..... de 2020




hauspoo
Ibarra